



EGUN BEREZI BAT

Goizean hasi zen dena. Ikastolara iritsi ginenerako nabari zen egun hura ez zela besteak bezalako. Urduri geunden, motxilak bizkarrean, hitz eta pitz eta mila asmo buruan. Iritsi zen azkenean Urdaibaira txangoa egiteko eguna. Astebete baino gehiago generaman zain. Gelan ekin eta ekin aritzen ginen galdezka:

—Eta utziko al diguzue bainatzen?

—Eta utziko al diguzue arrantza egiten?

—Eta utziko al diguzue karramarrotara joaten?

—Eta utziko...?




Izan ere, txango-egunak bereziak badira beti, orduko hartan are gehiago. Ez da egunero izaten lagun guztiakin batera barkuz ibiltzeko aukerarik. Erik eta biok itsasontziz ibiliak ginen bi aldiz, Menorcako oporraldi batean behin, eta Paristik igarotzen den ibaian beste behin. Huraxe izan zen onena, Eiffel dorrean gora ere igo baikin, ilargiraino ia. Gainera, kaio batek buru gainera kaka egin zion Eriki, ez dut inoiz ahaztuko jarri zuen nazka-aurpegia.

Baina oraingoan lagun guztiakin itsasoratuko ginen eta, gainera, uharte mortu bat bisitatuko genuen. Hori gutxi ez eta gau bat emango genuen etxetik kanpo, literadun eta gurazorik gabeko aterpetxe batean. Eta hori bai abentura, ez nolana hikoia.

—Denok autobusera —deitu zigun Jaionek txoferrak atea ireki zuenean.

Jaione gure irakaslea da. Ez da Atxondon bizi. Bergaratik etortzen da egunero, eta joan den neguan, elurrak zuritu zuen batean, ezin izan zuen eskolara iritsi, hain baitzegoen errepidea elurrez beteta.



Jaionerengandik gehien gustatzen zaiguna musika-talde batean jotzen duela da. Batzuetan erromerietara joaten gara bera ikustera. Iazko udan gauerdira arte gelditu ginen Elorrion. Ederra parranda!

Ziztuan igo ginen denok autobusera, eta gidariak errieta egin zigun segurtasun-gerrikoak lotuta ez eramateagatik. Mehatxu egin zigun inor gaizki eserita ikusiz gero edo beso-euskarriarekin jolasean harrapatuz gero autobusetik jaitsaraziko zuela eta akabo izango zitzaiola txangoa.

Obeditu egin genion, zer erremedio. Inork ez zituen, Atxondon geldituta, ikasturteko egunik onenak galdu nahi.

—Zorabiatzen ari naiz —kexatu zen Sara.

Errepide bihurgunetsua zen benetan, atzera begiratzuz gero erraz mareatzekoa.

—Eta ni lehertu egingo naiz! —protesta egin zuen Iñakik, eskuak hankartean.

Jaionek poltsa bat eman zion Sarari eta serio begiratu zion Iñakiri.

—Eutsi apur batean, iristear gaude —eskatu zien gidariak atzerako ispilutik muturtuta begiratzuz zien bitartean. Gizon hori pipertuta bizi da. Beti berdin. Txangoa dugun bakoitzean norbaitekin errietan hasi beharra ere! Gauza batengatik ez bada bestearengatik.

—Ni ere txizalari naiz —esan nuen txoferra amorrarazte hutsagatik.

Ainara barrez hasi zen nire intentzioari igarrita. Gaixo aurpegia jarri eta ozen asko esan zuen:

—Ni ere zorabiatzen ari naiz.

—Baita ni ere.

—Denok ari gara ondoezik jartzen —gehitu zuen Erikek.

Gidariak gero eta kopetilunago begiratzuz zigun. Burutik kea aterako zitzaiola zirudien. Eta zenbat eta pipertuago hura, gaixo-planta





handiagoak guk.

—Autobusa gelditzen badut, kalera joango zarete denok eta bakarrik egingo dut ospa —garrasi egin zigun.

—Mesedez, Jaione. Txizak irtengo dit —errepikatu zuen Iñakik larri.

Irakasleak, gerturatu, eta sorbaldan jarri zion eskua.

—Unetxo bat, iritsi gara ia. Ezin al diozu eutsi? Eta beste denok utzi tontakeriak egiteari.

Egia zen ailegatzear geundela. Hogei zenbatu aurretik ibaiertz batean gelditu zen autobusa. Etxe mordo zegoen, eta oso garaiak, Atxondon baino puska altuagoak.

—Gernikan gaude —azaldu zigun Jaionek txoferra bakean utzi eta autobusetik jaitsi ahala.

—Hori al da barkua? —galdetu nuen.



Ontzi zuri-berde bat zen, kapitainarentzako kabina txiki bat zuena eta eserleku luzeak, denok kabitzeko modukoak.

Ez zen Jaione izan erantzun zidana, ezpada gizon bizartzuri txano urdindun bat, ontziralekuan zain genuena.

—Hauxe da zuen ontzia. Ongi etorri Gorgontxora. Marrazo kapitaina nauzue.

—Marrazo izena duzu? —galdetu zion Erikek, nire nebak.

Erantzun aurretik, algara egin zuen kapitainak.

—Ez, baina hala deitzen didate Urdaibai osoko marinelik trebeena naizelako.

—Marrazoa?

Beste karkaila bat, aurrekoa baino luzeagoa.


—Itsasoetako erregea —argitu zuen Jaionek kapitainaren albora joanda.

—Prest al zaudete Gorgontxoren barruan abentura bat bizitzeko? —jakin nahi izan zuen kapitainak ontziratzearekin bat.

Baietz esan genuen denok, eta korrika abiatu ginen eserlekuetan lekua hartzera. Aimarren eta

Ainararen artean eseri nintzen ni, bi adiskide minen tartean. Aimar sekulakoa da, beti dago pozik, baita gelan gehiegi hitz egiteagatik jolas-ordurik gabe zigortzen gaituztenean ere. Zaharrago batzuek burla egin ohi diote, baina ez die jaramonik egiten. Gainera, bere alde egiten dugu guk. Ergel galanta izan behar da hanketako arazo baten erruz metalezko protesia eramatera behartuta dagoen baten kontura barre egiteko. Ainarak, berriz, beti barrez ari dela dirudi, haserre dagoenean ere bai. Begi ñarrotuengatik da, asiarra da-eta. Oso txikia zela ekarri zutenez, honezkero ez daki txineraz, horixe, pena. Ahaztu egin zaio. Batzuetan hitzen bat esaten du eta zalantza egiten dugu benetan

gogoratzen den ala asmatu egin ote duen. Edo agian txineraz gaizkiesaka ari da gure



kontura, auskalo, baina superjatorra da eta ederki pasatzen dut berarekin.

—Ontzia gidatu ahal izango dugu? —galdetu zuen Erikek lemari eutsita.

Marrazo kapitainak algara egin zuen beste behin. Bizarra gora eta behera mugitzen zitzaion karkaila bakoitzean.

—Ez, txo. Urdaibai itsaspeko hondartzaz eta ur-korrante traidorez beteta dago. Neuk eramango dut *Gorgontxo*, baina nahi izatera, laguntzen utziko dizuet.

—Nola?

—Laster jakingo duzue. Zeregin ugari daude itsasontzi batean.

Jaionek eser zedin eskatu zion Eriki eta kapitainak martxan jarri zuen motorra. Ontzia azkar urrunduz zen Gernikatik. Aurrera egin ahala kaioak eta bestelako itsas hegaztiak uxatzen genituen. Izututa, urertzeko landareen

artean ezkutatzen ziren.

—Begira, hark arrain bat darama mokoan —ohartarazi gintuen Sarak. Autobusean bezain zurbil zeukan aurpegia. Itsasontziaren kulunkak ez zion zorabioa gainditzen laguntzen. Sara ere lagun mina dut, baina agian minagoa du Erikek, inguruan ibiltzen zaio-eta beti. Sara gustatzen zaiola esaten diot nik eta tomatea baino gorriago jartzen da eta nire atzetik korrika hasten. Tentela, ez da, ba, hori disimulatzeko modurik onena! Egia esan, bikote xelebrea lirateke. Erik bere betiko kamiseta rockero eta bakero apurtuekin eta Sara bere soineko pertxentekin. Baina oso jatorra da, eta horixe da axola duena, ez?

Sarak esandako lekura begiratu genuen denok. Guganantz zetorren kaioa.

—Arraina mugitu egiten da oraindik! Begira isatsa nola astintzen duen.

—Ihes egingo dio, igual.

Barkuaren gainetik hegan igaro zen kaioa, hain behetik, haren hegoen soinua entzun ahal izan baikenuen. Gero itsasertzerantz egin zuen, baina lehorrera iritsi aurretik, ihes egitea lortu eta, zipriztinka, uretara erori zen arraina.



—Bazkaririk gabe gelditu da gaur —barre egin zuen Aimarrek.

Gainerakook ere poztu gintuen arraintxoak aske gelditu izanak.

—Kaioek ere jan egin behar dute. Eta haien kumeak, zer? Seguru txita gosetia dituela habian zain —esan zuen Marrazo kapitainak guganantz jiratuta.

—Guk ere jaten dugu arraina... —gehitu zuen Ainarak, tabletarekin dena grabatu ostean.

Beti gainean eramaten du tableta, baina ez du ez jolasteko ez filmak ikusteko erabiltzen. Denok ahoa bete hortz uzten gaituzten marrazkiak eta bestelako gauza batzuk egiten ditu tabletarekin. Jaionek ez dio eskolara eramaten uzten, baina txangoa beste kontu bat da.

—Jaione, lamiak ikusiko genituela esan zenigun. Non daude?

—Ez, lamiak ez. Lamiak bizi diren tokia ikusiko



dugu.

—Zer dira lamiak? —
galdetu zuen Ainarak.

—Ahate-oinak dauzkaten emakume horiek... Atzo azaldu zuen gelan! — argitu zion Erikek.

—Atzo gaixo nengoen eta ez nintzen eskolara joan!

—Egia. Eskerrak sendatu zaren. Pentsa etorri ezinda gelditu izan bazina.

—A ze txakurkeria.

Jaionek liburu bat ireki eta gelan erakutsi zigun lamien irudia pasa zion Ainarari. Gainerakook ezagutzen genuen azalpena, baina inguratu egin ginen hala ere. Ez gara istorio horiek entzuteaz sekula nekatzen.

—Gerritik gora begiratzuz gero ezer bitxirik ez duten andreak dira, baina ahate-oinak dituzte.



—Edo ahuntzarenak —gehitu zuen Aimarrek.

—Bai, zenbait lekutan ahuntz-apatxekin ere ikusi omen dituzte —onartu zuen irakasleak.

—Oso ederrak dira —esan zuen Ainarak.

Baietz egin zuen Jaionek buruarekin.

—Eta oso pertxentak. Urrezko orrazi batekin ilea orrazten aritzen dira beti. Eta horrek arazoak sortu izan dizkie gizakiekin, ezin baitute orrazia lapurtzerik jasan, eta badakite biziki gaiztoak eta mendekatzaileak izaten.

Solasean ari ziren bitartean, Urdaibai itsasadarra gero eta zabalago ageri zen. Barkua itsaso zabalera gerturatzen ari zen. Mendien babesatzean utzi orduko olatuek gogorrago kolpatuko zuten Gorgontxo. Ez gogorregi ere, haizerik ez zebilen-eta.

—Hara hor Lamiaran —iragarri zuen kapitainak muino baten gaineko baserria seinalatuz.

Harantz jiratu ginen guztiok.

—Horixe da lehen aipatu dizuedan lekua, lamien bizitokia.


—Etxean bizi al dira?

—Ez, basoan. Ikusten al duzue hango errekatxo hura? Haren ertzera esertzen dira ilea orraztera.

—Baten bat ikusiko al dugu?

—Ez dut uste. Oso zaila da. Eta hobe horrela, amorratu ez daitezen, bereziki haserrekorrak





dira —argitu zuen Jaionek.

—Harantzago, hango harkaitz haietan ere bizi dira lamiak —azaldu zigun kapitainak.

Aipatutako arroka itsasadarraren bestaldean zeuden, uharte moduko bat osatzen zuten.

—Lamiñaku izena du, eta zenbait arrantzalek kontatu didatenez lamiek urpeko jauregi bat dute bertan. Oso gutxitan ateratzen omen dira.

Kilimak sentitu nituen sabelean. Izugarria zen halako leku batean egotea, txoko magikoz inguratuta eta hain paraje ederrean. Gauza bera sentituko zuten Erikek eta beste guztiek ere, denak baitzeuden begiak arranpalo eta txintik atera gabe.

Ontziaren karelean gelditu zen kaio bat izan zen isiltasuna hausten aurrena. Haren karrakak itzularazi gintuen errealitatera. Zergatik ote dirudi kaioak barrez ari direla beti?

—Eta hemen bizi diren lamiek ahate-
oinak ala ahuntz-apatxak dituzte?
—galdetu nuen.

—Ez, bestelakoak dira. Arrain-isatsak dituzte —argitu zidan Marrazo kapitainak.

—Sirenek bezala!

—Bai, sirenek bezala.

—Baina benetan existitzen al dira? —galdetu zuen Ainarak.

Kapitainak sorbaldak jaso zituen.

—Nik ez ditut ikusi.

—Ezta nik ere —esan zuen Jaionek.

—Baina ezin dugu esan existitzen ez direnik. Inoiz edo behin haietakoren batekin topo egin duela ziurtatzen duen jende asko dago —gehitu zuen kapitainak.

—Agian gaur ikusiko dut bat edo beste. Begira, zerbait mugitu da hor.

Karelera gerturatu zen kapitaina, eta Aimarrek seinalaturiko haitzera begiratu zuen.

—Ikusten hegoak nola hedatzen dituen? Ubarroi bat da. Eguzkitan lehor

daitezen egiten du. Arrantzan arituko zen eta bustita izango ditu.

—Bustita? Eguzkia da-eta —erreparatu nuen.

—Arrainak jaten dituzte. Urpekari bikainak dira.

—Nola ibiliko da urpean... txori bat izanda!
—oihu egin zuen Aimarrek.

—Itsasertzeko hegaztiak airean bezain abilak dira urpean —azaldu zuen Jaionek.

Aimarrek sinesgogor aurpegia jarri zuen, baina ez zuen ezer esan.

—Izaro uhartera iristen ari gara.

—Eta
surflariak?
Mundaka
surfagatik da
ezaguna.

—Gaur ez
dago olaturik.

Itsasoa bare dago eta ez dago olaturik.

—Ze pena, ikusi egin nahi nituen —atsekabetu zen Ainara.

—Gure amak surfa egiten du —esan nuen.

Laborategitik goizago irten ahal izaten duen egunetan hondartzara gerturatzen da tarte batean olatuak hartzera. Niri inbidia apur bat ematen dit, eta zin egin dit datorren udan berarekin eramango nauela. Eta Erik ere bai, jakina; nahiz eta ez dakidan gogo handirik ote duen, ez baita ni bezain ausarta.

—Egia. Zer moduz joan zitzaion joan den eguneko txapelketa? —galdetu zidan Jaionek.


—Ederki pasa zuen —esan zuen Erikek.

Hala esan zigun amak Bakiotik itzuli zenean. Ederki pasa zuela, eta horixe zela axola zuen bakarra. Irabazteak edo galtzeak ez duela garrantzirik egiten duzunarekin gozatzen duzun bitartean. Halakoak esaten dituenean, galdu egin duen seinale.



—Egunen batean zuen ama animatzera joan beharko dugu, ezta? —proposatu zuen Jaionek.

Baietz erantzun genuen guztiok, eta planak egiten hasi ginen. Erik eta biok askotan joan izan gara amaren txapelketak ikustera, baina gelako guztiokin batera joatea ideia bikaina iruditu zitzaidan. Gainera, musika eta gozoki-dendak izaten dira beti. Nire neba liluratu egiten dute txokolatzeko gofreak, eta ni... ba, ni ere zoratu egiten naute.



ALTXORRAREN BILA

Egurrezko pasabide batetik jaitsi ginen lurrera. Ez zen erraza, ez baitzegoen ontzia amarratzeko kairik. Kapitainak ahalik eta gehien hurbildu zuen *Gorgontxo* uhartera, baina balantza handia egiten zuen. Niri ez zidan beldurrik eman, baina askori Jaionek lagundu behar izan zien jaisten.

—Badakit bakarrik —erabaki zuen Sarak Jaioneren eskua apartatuz.

—Kontuz —gomendatu zion irakasleak.

Sarak oin bat jarri zuen pasabidean eta, doi-doi bigarrena jartzera zihoanean, olatu batek barkua astindu eta oreka galdu zuen.

—Kontuz! —oihukatu zion Jaionek besotik heltzen zion bitartean.